



Ministerioaren aginduz, kirol-praktikara itzultzeko lehen faserako oinarriak ezarri dira. (SND/388/2020 Agindua, maiatzaren 3koa, saltoki eta zerbitzu jakin batzuk jendearentzat irekitzeko eta artxiboak irekitzeko baldintzak ezartzen dituen, bai eta kirol profesionala eta federatua egiteko baldintzak ere). Bertan ezartzen denaren arabera, kirol-praktika hiru kirolari-taldetan bana dezakegu:

### 1. Liga profesionaletako kirolariak (4 liga profesionaletako kirolariak):

- a. Oinarrizko entrenamenduak gauzatu, bakarka eta prebentzio eta higiene neurriak beteaz.
- b. Oinarrizko entrenamenduak kirol-instalakuntzetan egin daitezke.
- c. Neurriak:
  - i. Pertsonen arteko 2 metroko segurtasun-distantzia
  - ii. Eskuak garbitzea
  - iii. Osasuna babesteko bestelako neurriak

**Liga profesionalei** dagokie kirolari integratuen akreditazioa ematea.

### 2. Kirolari profesionalak eta Goi-mailako Kirolariak.

Kirolari profesionalak dira *1006/1985 Errege Dekretuak, ekainaren 26koa, kirolari profesionalen lan-harreman berezia arautzen duenak*, bere baitan hartzen dituen kirolariak; hau da, kirol-entitateekin lan-harremana duten kirolariak. Eta Goi-mailako kirolariak dira, goi-mailako edo interes nazionaleko kirolari gisa kalifikatutakoak (CSDren bidez).

- a. Bakarka entrenatuko dute
- b. Kalean / naturguneetan entrenatuko dute
- c. Bizi diren probintziaren eremuan arituko dira
- d. Beharrezko kirol-ekipamendua erabili ahaliko dute
- e. Denbora muga: entrenamendua ondo gauzatzeko kirolari bakoitzak behar duena
- f. Entrenatzailea aurrean egon daiteke (pertsona bakarra) beti ere, distantzia eta higiene neurriak hartuz
- g. Pertsonen arteko 2 metroko segurtasun-distantzia mantenduko da, eta bizikleta, patinak edo antzekoak erabiltzerakoan 10 metroko distantzia (kirol egokituaren kasuan salbu).

**Kirol-egokituko kirolariak** beste kirolari baten laguntza izan dezakete kirol-jarduera egiteko, hori saihestezina bada. Kasu honetan, segurtasun-distantzia behar haina murriztuko da eta beharrezkoa izango da bi kirolariak babes-maskarila erabiltzea eta higiene neurriak hartzea.

**Kirol federazioei** dagokie kirolarien lizentzia eta/edo Goi Mailako Kirolariaren ziurtagiria ematea.

**3. Kirolari federatuak:**

Kirolari hauek aukera izango dute egunean bitan kalean entrenatzeko, gainerako pertsonentzat ezarritako ordutegi berean, hau da goizean 6:00-10:00 artean eta arratsaldean 20:00-23:00 artean.

Kirol-egokituko kirolari federatuek beste kirolari baten laguntza izan dezakete kirol-jarduera egiteko, hori saihestezina bada. Kasu honetan, segurtasun-distantzia behar haina murriztuko da eta beharrezkoa izango da bi kirolariek babes-maskarila erabiltzea eta higiene neurriak hartzea.

**Kirol federazioei** dagokie kirolari federatuen lizentziak ematea.